

DEMOKRAZIAK ERREBOLUZIOA HILOBIRATZEN DUANEAN



Gaulixtek elezioak maiatzeko nahesmenduen ondorenean irabazi zituztenean **Pueblo** Madrileko egunkariak bere lehen horrian titular hau ekarri zuen: «Las urnas enterran la revolución». Emilio Romerok dixit. Euskeraren batasuna dela ta aldaketarik nahi ez dutenek demokrazia aitatu izan dute gazte saltsero ta h-zale hoién kontra. Gehiago oraindik, Arantzazuko Biltzarraren aurretik heldu zen gutun bat h-ren etsai bate-

na letra hau klasista dela ta langileek hori nola erabili ikasteko betarik ez omen dutenez, langileen kontrako dela ziona.

Nola ez oroitu hau ezagutzerakoan Gomulka ta Novotny-k Polonian eta Txekoslovakian egin zutenaz? Nazio hoietako populuek demokrazia gehiago eskatzen hasi ziran buruzagi hauek langileak pentsalarien kontra jartzen saiatu ziran, demagogia hutseko propagandaren bitartez. Poloniakoak neurri handi batean lotu zuen, Txekoslovakia-koak ez eta Dubcek-eri utzi behar izandu zion agintea.

Dagoanari eutsi nahi dionak, benetako aldaketarik nahi ez duenak bez, demokraziari hotsegingo dio, bai baidaki sistema aldatzen ez den bitartean dagoanak bere burua defendituko duela. Izandakoaren, eskarmentuaren, etorkizunaren beldurraren izenean mintzo dira.

Inertziarekin kontaktzen dute. Gauzak segi dezatela orain arte bezala. Beldurra astintzen dute aldaketak dakarren arriskuari eragozpena jartzeko. Ez dute inolako arriskurik nahi. Lehenago hil.

Alemaniko nazi berriek bere alderdia demokrata ta nazionala izenekin bataiatu dute. Ez da batere harrizkeoa.

Izan ere jendea ondo «edukaturia» eduki ezker, jendeari posibilitade berrien demostrazioa egin dezaioketenei bidea galerazi ezker, populuak sistemari balezkoa emango dio. Gaulixtak berak agintera militarren altxatze baten ondorenean heldu ziran agintera.

Horregatik, kontserbadoreak, eskuindarrak, reaktionarioak dira delako demokrazia hoién eustailerik handienak. Komeni zaienean noski, ez beti. Dagoanari eusteko hotsegiten diote demokraziari. Hemen h-ren eta euskera batuen kontrakoek bezala.

Delako demokrazia honen eta erreboluzioaren artean bigarrena hautatu behar. Dagoanean ittutzen ari diranek ez dute beste aukerarik.

R. A.